



# **BARNEKO FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIA**

**2024ko azaroaren 26**



## **BARNE FUNTZIONAMENDUKO ARAUDIA**

### **JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIA**

#### **I. TITULUA- Arau erregulatzailerak eta Ezarpen-eremua**

#### **II. TITULUA- Antolamendu-egitura.**

#### **III. TITULUA- Giza baliabideak.**

I. KAPITULUA: Irakasleak. Eskubideak eta betebeharrak

II. KAPITULUA: Ikasleak. Eskubideak eta betebeharrak.

III. KAPITULUA: Gurasoak. Eskubideak eta betebeharrak

IV. KAPITULUA Irakasle ez diren langileak. Eskubideak eta betebeharrak

#### **IV. TITULUA- Baliabide materialak**

I. KAPITULUA: Lokal eta instalazioen zerrenda

#### **V. TITULUA- Funtzionamendu-arauak**

I. KAPITULUA: Instalazioak. Ikasgelak, instrumentuak eta materiala.

II. KAPITULUA: Eskola-komunitatea.

#### **VI. TITULUA - Antolaketa-arauak**

I. KAPITULUA: Ikasleak onartzea.

II. KAPITULUA: Matrikula

III. KAPITULUA: Ikasketa-plana



## **I. TITULUA: ARAU ERREGULATZAILEAK ETA EZARPEN-EREMUA**

### 1.-Arau erregulatzaileak

Eskolak aplikatzekoak zaizkion lege-arau orokorrak beteko ditu: abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoari buruzkoa; abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa; eragiten dioten beste foru-arauak; Iruñeko Udalaren arauak, eta, subsidiarioki, erregelamendu hau.

Ikastetxeko hezkuntza-proiektuak, 1997ko abuztuan Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak onetsi zuenak, ikastetxea antolatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ezartzen ditu: gobernu-organoak eta horien funtzioak, irakaskuntzen antolamendua, etab.

Eskolako Kontseiluak, gobernu-organoetako batek, ikastetxearen bizikidetzatza- eta antolakuntza-arauak ezartzen ditu, eta Funtzionamendu-arauetan biltzen ditu. Arau horien lehen zirriborroa Kontseiluaren 1999ko martxoaren 30eko bileran aurkeztu zen onetsia izateko. Orduz geroztik, arau horietako batzuk aldatu eta beste batzuk erantsi egin dira, Kontseiluaren hurrengo saioetan. Kontseiluak eskatuta, 2015eko otsailaren 24an egindako saioan, Funtzionamendu-arauen artikuluetan jasotzen dira 1999ko martxotik aurrera onetsitako aldaketa guztiak, Arau horien "Aplikazio-esparrua" 2. puntuarekin bat.

Eskolako Kontseilua da funtzionamendu-arauak onartzeko organo eskuduna, Joaquín Maya Musika Eskolako Hezkuntza-proiektuaren 3.2.2.2 puntuko 4. zenbakian jasotzen denaren arabera.

### 2.-Aplikazio-esparrua.

Barne Funtzionamenduko Araudi hau nahitaez bete behar dute JOAQUÍN MAYA Musika Eskola Bereziko Hezkuntza Komunitatea osatzen duten guztiek: irakasleek, ikasleek, ikasleen guraso zein tutoreek eta irakasle ez diren langileek.

Hezkuntza Proiektuan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, Erregelamendua barne funtzionamendurako arauak dira, ikastetxearen antolakuntzarekin lotura zuzena duten gaiak biltzen ditu eta haren beharretara egokitu beharra dauka. Urtero berrikusi beharko da eta, hala badagokio, aldaketarik egonez gero, horiek Eskolako Kontseiluak onetsi beharko ditu eta behar bezala aldatu edo erantsi beharko zaizkio Araudi honi.



Aplikazio-eremu fisikoa honako hau izanen da:

- Joaquín Maya Musika Eskola Bereziaren eraikina bera
- Hezkuntza-komunitatea osorik edo zati batean joaten den beste edozein lokal edo eraikin.

## **II. TITULUA: JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIKO ANTOLAMENDU-EGITURA**

### I. KAPITULUA: Kide Anitzeko Gobernu- eta Partaidetza-organoak

Kapitulu honi dagozkion arau guztiak eskolako Ikastetxe-planean/Hezkuntza planean<sup>1</sup> bilduta daude, zeina Udaleko Osoko Bilkurak onetsi baitzuen 1997ko abuztuaren 29an.

## **III. TITULUA: GIZA BALIABIDEAK**

### I. KAPITULUA: Irakasleak

1.-Indarrean diren legeek aitortutako **eskubideez** gain, Joaquín Maya musika-eskolako irakasleek beste hauek ere badituzte:

- a) Irakasleen klaustroan parte hartzea. Ikastetxeko gobernu-organoetako hautesle eta hautagai izatea.
- b) Ikasleek, gurasoek eta irakasle ez diren langileek zuzentasunez eta errespetuz tratatzea.
- c) Ikastetxeari oro har edo haiei bereziki dagozkien gaiei buruzko informazioa jasotzea dagokionaren eskutik.
- d) Era guztietako ekimenak, iradokizunak edo arazoak aurkeztea Zuzentaritza-taldeari edo Eskolako Kontseiluari.
- e) Gurasoekin eta ikasleekin bilerak egitea ikastorduetatik kanpo.
- f) Eskolako material guztia erabiltzea, irakaskuntzan aritzeko, ezarritako ordutegiak eta arauak errespetatuz.
- g) Ekimenak sustatzea ikerketa pedagogiko gisa.
- h) Lanbidea berritzeko eta hobetzeko eskubidea, betiere horretarako programatutako jarduerak antolatzea posible bada.

---

<sup>1</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia



2.- Joaquín Maya musika-eskolako irakasleek honako **betebehar** hauek dituzte:

- a) Bizikidetzaren, segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea eta errespetaraztea.
- b) Eskola-komunitateko gainerako kideak errespetuz tratatzea.
- c) Dagozkien eskola, klaustroko bilera, departamentuko bilera eta abarretara joatea eta aktiboki parte hartzea.
- d) Irakasleak ulermen-espirituan, tolerantzian eta bizikidetzaren demokratikotasunaren hezteko, haien kontzientzia zibikoa, morala eta erlijiosoa errespetatuz, baita horietako bakoitzaren nortasuna ere.
- e) Guraso eta ikasleekin bilerak egitea ezarritako ordutegian.
- f) Irakasleak irizpide objektibo eta esplizituaren arabera ebaluatzea.

## II. KAPITULUA: Irakasleak:

1.-Irakasleen **eskubideak** honako hauek dira:

- a) Haien nortasunaren garapen osoa bermatuko duen prestakuntza jasotzeko eskubidea.
- b) Irakaskuntza-maila guztietara sartzeko aukera berberak izateko eskubidea. Derrigorrezkoak ez diren mailetan, ez da muga gehiagorik egon, aprobetxamenduaren edo ikasteko gaitasunen ondoriozkoak baino.
- c) Irakasleek beren errendimendua objektibotasun osoz ebaluatua izateko eskubidea dute.
- d) Irakasle guztiek dute eskola- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea, ahalik eta garapen pertsonal, sozial eta profesional handiena lortzeko, beren gaitasun, nahi eta interesen arabera.
- e) Irakasle guztiek dute beren jardueraren akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egiteko eskubidea.
- f) Irakaslearen kontzientzia-askatasuna errespetatuta izateko eskubidea, baita haien sinesmen erlijiosoa, moralak eta ideologikoa zein sinesmen edo uste horiei dagokien intimitatea izateko eskubidea ere.
- g) Haien osotasun fisiko eta morala eta duintasun pertsonala errespetatuta izateko eskubidea, tratatu iraingarri edo umiliagarri inola ere jaso gabe.
- h) Eskolako funtzionamenduan eta bizitzan, eskola-jardueran eta haren kudeaketan parte hartzeko eskubidea, LOMCEn eta Erregelamendu Organiko honetan ezarritakoarekin bat.
- i) Eskolako Kontseilu ordezkariek hautatzeko eskubidea, boto sekretu eta zuzenaren bidez.



j) Elkartzeko eskubidea, ikasleen elkarteak, federazioak eta konfederazioak sortuz. Eskolarekiko harremana amaitu ondoren ere kidetzen ahalko dira haietan, eskolatzelaldia amaitutakoan.

k) Eskolako Kontseiluan dituzten ordezkarien partetik informazioa jasotzeko eskubidea.

l) Adierazpen-askatasunerako eskubidea, ezertan galarazi gabe hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak eta konstituzio-printzipioen eta -eskubideekin bat erakundeek merezi duten errespetua.

m) Eragiten dieten hezkuntza-erabakien inguruan desadostasuna adierazteko eskubidea. Desadostasuna kolektiboa denean, ikasleen ordezkarien bidez bideratuko da, indarrean dagoen araudian ezarritako moduan.

n) Ikastetxeetan biltzeko eskubidea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren parte diren eskolako nahiz eskolaz kanpoko jardueretarako, bai eta hezkuntza- edo prestakuntza-helbururen bat esleiri dakiekeen beste jarduera batzuetarako ere. Ikastetxeko zuzendariak bermatuko du ikasleek bilera-eskubidea gauzatu ahal izatea eskolako ordutegiaren barruan.

o) Ikastetxeetako instalazioak erabiltzeko eskubidea, eskolako eta eskolaz kanpoko jardueren programaziotik eratorritako mugekin eta beharrezkoak diren badaezpadako neurriekin pertsonen segurtasunari, baliabideen kontserbazio egokiari eta baliabideen erabilera egokiari dagokienez.

p) Ikastetxeetako jardueretan borondatez parte hartzeko eskubidea.

q) Familia-, ekonomia- eta gizarte- eta kultura-arloko gabeziak konpentsatzeko behar diren laguntzak jasotzeko eskubidea.

r) Gizarte-babeserako eskubidea familia-ezbeharren edo istripuen kasuetan.

Ikasleen eskubideak errespetatzen ez direnean edo hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskubide horiek gauzatea eragozten duenean, Eskolako Kontseiluak dagozkion neurriak hartuko ditu, interesdunari entzun ondoren.

2.-Ikasleen **betebeharrak** honako hauek dira:

1.- Ikastea ikasleen oinarrizko betebeharra da, eta honako betebeharrak hauetan zehazten da:

a) Eskoletara garaiz joatea eta ikasketa-planak garatzera bideratutako jardueretan parte hartzea.

b) Ikastetxeko jarduerak garatzeko onetsitako ordutegiak betetzea eta errespetatzea.

c) Irakasleek beren ikaskuntzari buruz ematen dituzten orientabideak jarraitzea, eta errespetua eta begirunea erakustea.



d) Ikaskideek ikasteko duten eskubidea errespetatzea.

2.-Hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien kontzientzia-askatasuna eta sinesmen erlijiosoak zein moralak errespetatu behar dituzte, baita haien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere.

3.-Ikasleen betebeharra da hezkuntza-komunitateko ezein kide ez baztertea sorterrri, arraza, sexu edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik.

4.-Ikasleek ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatu behar dute

5.-Ikasleek modu egokian zaindu eta erabili behar dituzte ikastetxeko ondasun higigarriak eta instalazioak, eta hezkuntza-komunitateko beste kideen ondasunak errespetatu.

6.-Ikasleek ikastetxeko bizitzan eta funtzionamenduan parte hartu behar dute.

7.-Adingabeko ikasleek Musika Eskolako instalazioen barruan egon beharko dute beren gurasoak/tutoreak bila etorri arte, eta eskola-ordutegitik kanpo horiek izanen dira ikasleen arduradun.

### III. KAPITULUA: Ikasleen gurasoak, tutoreak:

Ikasleen guraso eta/edo tutoreek honako **eskubide** hauek dituzte:

- a) Eskolako Kontseiluko hautesle edo hautagai izatea.
- b) Elkartzeko eskubidea, Guraso Elkarteak eratuz.
- c) Ikastetxearen martxari buruz dituzten iradokizunak edo ekimenak entzunak izateko eskubidea.
- d) Errespetuz tratatuak izateko eskubidea hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien aldetik.
- e) Haien seme-alaben prestakuntzari buruzko informazioa jasotzekoa.
- f) Haien seme-alabek prestakuntza osoa jasotzeko eskubidea, ikastetxearen izaera propioarekin bat.
- g) Ikastetxearen eta Hezkuntza Proiektuaren funtzionamendua ezagutzekoa.

2.-Gurasoen (eta/edo tutoreen) **betebeharrak** honako hauek dira:

- a) Haien seme-alabek eskolarekiko, irakasleekiko, ikaskideekiko eta irakasle ez diren langileekiko aldeko jarrera izan dezaten saiatzeko.
- b) Hezkuntza Proiektua errespetatzea.



- c) Hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztiak errespetatzea.
- b) Semea edo alaba eskolara garaiz joaten dela, higiena eta behar besteko atsedena duela zaintzea, eta Musika Eskolako ikastorduetatik kanpo haien ardura hartzea.
  - c) Haien eskura jartzea eskolan erabiltzeko behar adina material.
  - d) Seme-alaben portaerarekiko eta errendimenduarekiko interesa agertzea.
  - e) Irakasleekin harremanetan egotea eta deitutako bileretara joatea. Ikastetxera joatea, Eskolako Kontseiluak, zuzendaritza-taldeak eta irakasleek hala eskatzen dutenean.
  - f) Seme-alaben eskola-hutsegiteak justifikatzea.
  - g) Seme-alabek ikastetxean eragiten dituzten kalteen ardura haien gain hartzea.
  - h) Eskolak galdatutako inkestak, eskaerak edo beste dokumentuak betetzea.

#### IV. KAPITULUA: Irakasle ez diren langileak.

##### 1.- Irakasle ez diren langileen **eskubideak**.

- a) Eskola-komunitateko gainerako kideen errespetua izateko eskubidea dute.
- b) Ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko eskubidea, Eskolako Kontseiluan dituzten ordezkarien bitartez, egokitzat jotzen dituzten erreformak, iradokizunak eta abar proposatuz.
- c) Haien arazoak, beharrak eta interesak bideratzeko eskubidea, dagozkien organoen barruan: Zuzendaritza-taldea eta Eskolako Kontseilua.
- d) Ikastetxearen barruan eragiten dien edozein aldaketaren berri izateko eta/edo horren inguruan kontsultatua izateko eskubidea.
- e) Eraikina eta instalazioak erabiltzeko eskubidea, lana egiteko beharrezkoa denean.

##### 2.- Irakasle ez diren langileen **betebeharrak**:

- a) Eskola-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak errespetatzea.
- b) Hezkuntza Proiektua errespetatzea

## **IV. TITULUA BALIABIDE MATERIALAK**

### I. KAPITULUA: Lokal eta instalazioen zerrenda

- 1.- Joaquín Maya Musia Eskola Chinchilla jeneralaren kaleko 6. zenbakian dago.



2.- Eskola-zereginetarako birgaitutako eraikinak honako hauek ditu: liburutegia, irakasleen gela, administrazioa, zuzendaritza-bulegoa, ikasketaburuaren eta idazkariaren bulegoa, barne-erabilerako gela -fotokopia-zerbitzua eta kutxatila barne-, officea, itxarongela, *Mariano García* Ekitaldi Aretoa, sotoa -mantentze-gelak barne-, atezainen gela, 43 ikasgela, 4 ikasketa-kabina, komunak solairu guztietan. Hala badagokio, toki- edo antolaketa-beharrengatik Udalak emandako lokalak erabiltzen ahalko ditu, eta horietan araudi hau aplikatuko da.

3.- Joaquín Maya Musia Eskolak, halaber, askotariko material didaktikoa eta instrumentala du, eskolako inbentario orokorrean zehazten dena.

## **V. TITULUA: FUNTZIONAMENDU-ARAUAK.**

### I. KAPITULUA: Ikastetxeko instalazioen erregulazioa.

Ikasgelak erabiltzeko lehentasun-hurrenkera hauxe izanen da:

a) Ikastetxeko irakasle guztiek erabiltzen ahalko dituzte ikasketa, entsegu, bilera eta abarretarako, betiere erabilpen didaktikorako ezarritako ordutegia errespetaturik eta ikastetxearen ordutegi orokorraren barruan. Erabilera didaktikoa bada, irakasleek lehentasuna izanen dute ikasgelak zein ikasteko instrumentuak erabiltzeko.

b) Ikasleek ikastetxeak horretarako berariaz bideratutako ikasgelak erabiltzen ahalko dituzte ikasteko, irekiera-ordutegi orokorraren barruan. Ikasgela libreak lortzeko arazorik balego, erabilpena 30 minutura mugatuko da. Haiek erabiltzeko, erabiltzaile-txartela eskuratu beharko da eta Urteko Planaren araudi orokorreko baldintzak bete. Ezin izanen dira inolaz ere erabili ekitaldi-aretoa edo liburutegia, irakasle arduradunik ez badago. Ikasgelak instrumentuarekin erabiltzeko, horretan matrikulatutako ikasleek izanen dute lehentasuna.

c) Ikasle ohiek ikasgelak erabiltzen ahalko dituzte, ikastetxean aukerarik badago, musikari edo entseguari lotutako gaiak ikasteko, betiere erabilpen didaktikorako ezarritako ordutegia errespetaturik eta ikastetxearen ordutegi orokorraren barruan. Erabili ahal izateko, erabiltzaile-txartela eskuratu beharko dute eta Urteko Planaren araudi orokorreko baldintzak bete, betiere Udalaren araudiek xedatzen dutenarekin bat.

d) Ikasleek zein ikasle ohiek dagokien eskabidea betez egiten ahalko dute ikasgelak hezkuntza-komunitatez kanpoko gonbidatu batekin lagunduta erabiltzeko eskaera, kasu honetan horrek inolako tasarik ordaindu gabe. Gonbidatu gehiago badaude, nork bere baimena eskatu beharko du, eskabidearen bidez, eta dagokion tasa ordaindu. Eskabideak Iruñeko Udalaren edozein erregistrotan aurkezten ahalko dira, edo



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren bideetako edozein erabiliz.

e) Hezkuntza-komunitateaz kanpoko izanik, ikasgelak erabili nahi dituen edonork eskabidea aurkeztu beharko du erregistroan eta dagokion tasa ordaindu. Eskabideak Iruñeko Udalaren edozein erregistroan aurkezten ahalko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren bideetako edozein erabiliz. Ikasgela batek baino gehiagok erabili nahi izanez gero, nor bere eskaera izapidetu beharko du.

f) Ikastetxearenak ez diren beste edozein erakunderekin egiten ahal diren akordioen bidez, instalazioak doan erabiltzea baimentzen ahalko da.

g) Erabilera-denbora, gehienez ere, 30 minutukoa izanen da. Denbora luzatzen ahalko da gela librerik badago. Ezinen da denbora-tarte hori gainditu ikasleak badaude gela erabiltzeko zain. Ezin izanen da, inola ere, giltza gorde Eskolako beste gela batzuetara joateko. Egoera hori gertatuz gero, erabiltzaileari zehapena ezarriko zaio, eta ezin izanen ditu ikasketa-gelak astebetetz erabili.<sup>2</sup>

## 2.- Instrumentuen erabilera.

a) Irakasle guztiek erabiltzen ahalko dituzte Eskolako instrumentuak bai ikasteko bai helburu didaktikoetarako, betiere irakasgaien saioretan eta ikastetxeko ordutegi orokorraren barruan erabiltzeko ordutegia errespetatzen bada.

b) Ikasle guztiek erabiltzen ahalko dituzte Eskolako instrumentuak ikasteko, aldeztatik irakasleak baimendutako instrumentu-eskaera eginda eta Eskolako idazkariaren oniritziarekin. Instrumentuek maileguan egon bitartean jasaten ahal dituzten kalteak erabiltzailearen kontura konponduko dira.

c) Ez zaie inolaz ere ez instrumenturik ez osagarri mailegatuko hezkuntza-komunitatetik kanpoko pertsoneri, ikasketa-geletan eskuragarri daudenak izan ezik.

d) Eskolak instrumentuak lagatzen ahalko ditu programatutako jardueretarako, horien arduradun diren eskolako irakasleek gainbegiratuta.

e) Eskolak instrumentuak lagatzen ahalko ditu programatutako jardueretarako, horien arduradun diren eskolako irakasleek gainbegiratuta.

f) Musika Eskolarekin lotura zuzenik ez duten erakundeei salbuespenez lagatzen ahalko zaizkie instrumentuak, betiere zuzendaritzaren baimenarekin, udal-araudia betez eta gai horri buruz indarrean dauden tarifak ordainduz.

---

<sup>2</sup> Eskolako Kontseiluak 2020ko ekainaren 20ean hartutako erabakia



### 3.- Telefono eta ordenagailuen erabilera.

Beharrezkoa den guztietan, klaustroak Eskolako telefonoak eta ordenagailuak erabiltzen ahalko ditu, indarrean dauden arauekin bat.

Eskolako ordenagailu guztiek Interneterako sarbidea izanen dute.<sup>3</sup>

### 4.- Liburutegia.

a) Irakasleek liburutegiko material guztia erabiltzen ahalko dute, Urteko Planaren araudi orokorrean jasotako arauekin bat.

b) Eskola-komunitateko edozein kideri liburuak mailegatzeko, erabiltzaile-txartela eduki beharko du, eta Urteko Planaren araudi orokorrean ezarritako mailegu-araudia bete beharko da.

### 5.- Beste material batzuen erabilera.

Eskolan eskuratzen ahal diren audio- eta bideo-aparatuak, ekipo informatikoak eta bestelako materialak eskolako irakasleek bakarrik erabiltzen ahalko dituzte, betiere Urteko Planaren araudi orokorrean jasotako arauak une oro beteta.

6.- Eskola-komunitateko kideek konpondu, ordaindu edo birjarri beharko dituzte ikasgela, instalazio, instrumentu, liburu edo bestelako objektuetan eragindako kalteak.

## II. KAPITULUA: Hezkuntza-komunitatearen bizikidetza- eta funtzionamendu-arauak.

### 1.- **Eskolako Kontseiluaren** funtzionamendu-araubidea.

Hezkuntza Proiektuan jasota dago. Ikastetxeko Kontseilua hautatu eta eratzeko araudia alkatetzaren 1997ko abenduak 31ko 13/ED ebazpenaren bidez onetsi zen.<sup>4</sup>

Eskolako Kontseiluak ahalmena ematen dio Zuzendaritza-taldeari instantzia guztiak ebazteko, betiere aplikatzen ahal baditu Barneko Funtzionamendu Araudian ezarritako irizpideak eta aurrez gertatutako egoeren antzera ebatzi badaitezke, 2007ko irailaren 4an egindako Eskolako Kontseiluan erabaki zen bezala.

### 2.- **Irakasleen klaustroaren** funtzionamendu-araubidea.

Hezkuntza Proiektuan jasota dago

<sup>3</sup> Eskolako Kontseiluak 2003ko irailaren 25ean hartutako erabakia

<sup>4</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia



### 3.- **Irakasleen** funtzionamendu-arauak.

a) Informazioa emanen diete ikasleei programazioei, ebaluazio-irizpideei, eskatzen ahal zaizkien gutxienekei, eta abarri buruz. Era berean, ikasleen errendimenduaren berri emanen dute.

b) Materialaren eta instalazioen erabileraren berri ematea arduradun eskudunari.

c) Zuzendaritzari idatzizko frogagiri bat aurkeztea lanera joan behar ez denean, eta indarrean dagoen legera egokitzea uneoro.

d) Ikasleak eskolara joaten direla kontrolatzea, eta familiari eta ikasketaburuari informazioa ematea, 4. apartatuan ezarritakoarekin bat.

e) Legearekin bat, ezin da erre Eskolako barrutian.

f) Ezartzen diren administrazio-agiri pedagogikoak betetzea: kalifikazio-buletinak, ebaluazio-aktak, etab.

g) Indarrean dauden legeen arabera, lanera ez joatea aurreikusten duenean ikasleekin jarraitu beharreko lan-plana prest utziko du, haren ordezekoak aplikatu dezan.

h) Urteko Planean ezarritako arauak betetzea, ordutegiei, funtzionamenduari, jardueretara joateari eta abarri dagokienez.

i) Zein ikasleek merezi duen ohorezko matrikula erabakitzea, erakutsitako talentuagatik eta musika-gaitasunengatik ez ezik, haren errendimenduagatik ere.

### 4.- **Ikasleen** funtzionamendu-arauak

a) JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLAK abuztuaren 23ko 47/2012 Foru Dekretua – Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa– aplikatzeaz gain, funtzionamendu-arau hauek ezartzen ditu.

b) Eskoletara justifikatu gabe huts egiteak zehapena ekarriko du, honako hauekin bat<sup>5</sup>:

- Irakasgai guztiak aintzat hartuta justifikatu gabeko 7 hutsegite eginez gero, ikasleari kargua hartuko zaio posta elektronikoz, eta horren bidez, jakinaraziko zaio zein egoeratan gera daitekeen hurrengo paragrafoan jasotako gehieneko hutsegite-kopurua pilatuz gero, artikulua hau espresuki adierazita. Ikaslea adin txikikoa bada, mezua aitari, amari edo legezko tutoreari bidaliko zaio. Horrez gain,

---

<sup>5</sup> Eskolako Kontseiluak 2019ko urriaren 30ean hartutako erabakia



- sms bat bidaliko da justifikatu gabeko hutsegiteengatik kargua hartzeko bidalitako e-mailaren berri emateko.
- Irakasgai guztiak aintzat hartuta justifikatu gabeko 12 hutsegite pilatuz gero, ikaslea eskolatik kanporatua izanen da. Neurri hori postaz jakinaraziko da, eta behin betiko baja emanen zaio behin alegazio-epea amaituta edo alegazioak ebatzita, halakorik aurkeztuz gero.
  - Ikasleak irakasgai bakarra edukiz gero, ohar bat bidaliko zaio justifikatu gabeko 3 hutsegite egin ondoren, eta baja emanen zaio baldin eta justifikatu gabeko 5 hutsegite pilatu baditu.

Justifikatu gabeko hutsegiteengatik eskolatik kanpo geratutako ikasleak oro ezin izanen dira berriz ere Eskolan matrikulatu, harik eta gutxienez 2 ikasturte igaro arte eskolatik kanpo geratu zen eskola-ikasturtetik kontatuta.<sup>6</sup>

Bost puntualtasun-falta eginez gero, hutsegite bat zenbatuko da.

Justifikatutako hutsegitezat joko dira gaixotasun batek eragindakoa, eta dagokien agiriaz justifikatu beharko dira jarraian egindako hiru hutsegiteetatik aurrera. Hutsegiteak justifikatuko dira baldin eta ikasleak joan behar badu Eskolak berak antolatutako edozein jardueretara edo Iruñetik ateratzea eskatzen duten eskola-jardueretara (ikasle-trukeak, kanpaldiak, etab.). Ez dira justifikatuko honako zio hauengatik egindako hutsegiteak: jaiak, urtebetetzeak, ikasi beharra, beste ikastetxeetan izandako zigorrak, etab., ezta lan egin behar duten ikasleen lan-ordutegiak eragindakoa ere. 18 urtetik beherako ikasleek aitaren edo amaren idazki baten bidez justifikatu beharko dituzte hutsegiteak. 18 urtetik gorako ikasleek bere idazki baten bidez justifikatu beharko dituzte hutsegiteak. Kasu guztietan Eskolak beretzat gordeko du egiaztagiria onartzeko ala ez onartzeko eskubidea.

- Eskolak ikaslearen lan-jardunarekin bateraezin izateagatik egindako hutsegiteak ez dira justifikatutzat joko.

- Bertaratze-kontrola irakasgaiko irakasleak eramanen du, eta hark ikasketaburuari emanen dio justifikatu gabe gertatutako hutsegiteen berri.

c) Ikasle batek ez baditu eskolak aprobetxatzen, ez badu ikasten edo irakasgaiko programazioan irakasleak eskatutako lanen aurrean arduragabekeriaz jokatzeko badu, Eskolako Kontseiluak zehapena ezartzen ahalko dio, eta, irakasleak txostena eman eta gero, behin interesdunari entzunda, Eskolatik kanporatzen ahalko du.

---

<sup>6</sup> Eskolako Kontseiluak 2024eko azaroaren 26an hartutako erabakia



d) Beharrezkoa den materiala (instrumentua, partiturak, etab.) eskoletara ez eramateak saio hori galtzea ekartzen ahal du berekin, eta justifikatu gabeko hutsegitezat joko da.

e) Ikasleak matrikulatuta dagoen irakasgairen bat ez badu gainditzen eskolatzea galduko du.

d) Kapitulu honetako 4 b) artikuluan deskribatutako prozedura ez zaie aplikatuko ikasketa-plan ofiziala jarraitzen ez duten ikasleei.<sup>7</sup>

#### 5.- **Ikasle** adingabeen **gurasoen** funtzionamendu-arauak.

a) Ikasleen gurasoek, aldez aurretik hitzordua eskatuta, irakasleekin hitz egiten ahalko dute tutoretza-ordutegian. Gurasoek ezinen dituzte eskolak eten irakasleekin hitz egiteko eskola-orduetan.

b) Seme-alaben hutsegiteak justifikatu beharko dituzte, egoki iritzitako dokumentazioa aurkeztuz; bestela, hutsegitea ez da justifikatutzat joko.

#### 6.- **Irakasle ez diren langileen** funtzionamendu-arauak.

a) Lanpostua ikastetxean duten administrariak –zeinen funtzioak Iruñeko Udalaren plantilla organikoak zehazten baititu– honako zeregin hauek ere bete beharko dituzte:

- Irakasleek agindutako mekanografia-lanak egitea, irakaskuntza-lanarekin zerikusia badute: kalifikazio-buletinak, irakasgaiaren programak, ikasleendako eta familiendako zirkularrak, kontzertu- eta entzunaldi-programak, etab.

- Ikasleei jakinaraztea beren irakaslea ez dela etorriko indarrean den legediaren araberrako arrazoi justifikatu batengatik.

b) Lanpostua ikastetxean duten zerbitzu anitzeko langileek (atezainak) –zeinen funtzioak Iruñeko Udalaren plantilla organikoak zehazten baititu– honako zeregin hauek ere bete beharko dituzte:

- Fotokopien zerbitzuaz arduratzea irakasleek eskatzen dutenean. Eskolak behar bezala funtzionatzeko, irakasleak arratsaldean ahalik eta fotokopia gutxien eskatzen saiatuko dira.<sup>8</sup>

- Atezaindegian jasotzen diren jakinarazpenen berri ematea irakasleei horiek jasotzen diren unean, Eskolan daudenean.

- Irakasleek beren irakaskuntza-eginkizunak betetzeko behar dituzten zerbitzuak ematea (materialez hornitzea, entzunaldi eta kontzertuetarako ekitaldi-aretoa prestatzea, etab.).

<sup>7</sup> Eskolako Kontseiluak 2020ko ekainaren 29an hartutako erabakia

<sup>8</sup> Eskolako Kontseiluak 2003ko irailaren 25ean hartutako erabakia



## 6.- **Kolaboratzaileen** funtzionamendu-arauak

Eskolako Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an hartutako erabakiaren bidez, kolaboratzailearen figura sortzen da, Eskolak hala eskaturik kontzertuetan edo bestelako jardueretan laguntza emateko.

Kolaboratzaile horiek ez dira inoiz ikasle izanen eta, horrenbestez, ez dute beste irakasgai baten eskolarik jasoko eta ez dute inongo tasarik ordainduko.

Eskatzen zaizkien eginkizunetarako Eskolako instrumentuak eta materiala erabiltzen ahalko dituzte, antolamendurako egoki joz gero.

## **VI. TITULUA: Antolaketa-arauak**

### I. KAPITULUA: Ikasleak onartzea.

Musika Eskolan sartzeko zozketa bakarria egingen da.

#### **1.- Zozketa bakarria.**

a) Sarrera-eskaerak ikaspostuak baino gehiago badira, zozketa egingen da.

b) Adinaren araberako lehentasun-irizpideak ezartzen dira, eta ikaspostuen % 10 erreserbatuta dago 15 urtetik gorakoendako<sup>9</sup>, Eskola Proiektuan ezarritakoarekin bat. 30 urtetik gorakoendako ikaspostuen % 10 gainditzen ahalko da, betiere 15 urtetik beherako ikaslerik geratzen ez bada ikasposturik gabe<sup>10</sup>

c) Musika ezagutzak dituzten ikasleek, zozketa bidez onartuak izan ondoren, eskatzen ahalko dute proba bat egiteko, Musika-hizkuntzan duten maila zehazteko. Instrumentu-erronda eta -hautaketa egin eta gero, ikasle bati esleitzen bazaio ezagutzen duen instrumentu bat, instrumentu-irakasgai horren ardura duten irakasleek egoki jotako mailan jarriko dute ikaslea ikasturtean zehar.

[Musika-hizkuntzako irakasleek proposatuta, maila-probak egiten ahalko dira ikasturtea hasi ondoren. Ez da mota horretako probarik egingen urtarriletik aurrera.](#)<sup>11</sup>

d) Eskolara sartzeko ezinbesteko baldintza izanen da maila bakoitzeko derrigorrezko irakasgai guztiak egitea, baliozkotzen dutenen kasu bereziak eta bigarren hiru hilekoan sartzeko direnak salbu. Kasu horretan ikasleek instrumentuan bakarrik

---

<sup>9</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko azaroaren 16an hartutako erabakia

<sup>10</sup> 2021eko azaroaren 18an Eskolako Kontseiluak esaldi hau kentzea erabaki zuen: "eta hurrengo ikasturtean 30 urtetik gorakoendako Musika-hizkuntzako talde bakar bat mantentzen ahal denean."

<sup>11</sup> Eskolako Kontseiluan 2024eko ekainaren 20an hartutako erabakia



eginen dute matrikula, eta hurrengo ikasturtetik aurrera Ikasketa-planeko ikasgai guztiak ikasi beharko dituzte.<sup>12</sup>

e) 'Entzulearen' irudia desagertzen da, Egokitze-ikasturtea bigarren aldiz egiten duten ikasleen kasuan. Ikasle horiek, zeinek arrazoi ezberdinak direla medio Sarrera probetara bigarren aldiz aurkeztu behar baitute, berriz ere matrikulatzen ahalko dira Egokitze-ikasturtean, ohiko epeetan, gainerako ikasleak bezala, edo ez ohiko epean, otsailean, baldin eta ikaspostu librerik badago eta matrikularen parte proportzionala ordaintzen badute.

Egokitze-ikasturtean bigarren aldiz matrikulatzen diren ikasleek 40 minutuko instrumentu-eskolak izanen dituzte astean<sup>13</sup>

Otsailean matrikula-eskaerak ikaspostuak baino gehiago izanez gero, zozketa bat eginen da.

Egokitze-ikasturtean bigarren aldiz matrikulatzen diren ikasleek 30 minutuko instrumentu-eskolak izanen dituzte astean.

## **2.-Itxarote-zerrendak.**

a) Zozketa egin eta gero, ikasle berriak matrikulatuko dira hutsik dauden ikaspostuetan. Instrumentu-erronda eta -erakustaldia baino lehen, irailean, ikasposturik eskuratu ez dutenek itxarote-zerrenda osatuko dute, zozketan ezarritako ordenarekin bat.

b) Itxarote-zerrendak publikoak izanen dira eta haien gaineko informazioa emanen zaie eskatzen duten guztiei.

c) Ikasturte bakoitzean berrituko dira.

d) Itxarote-zerrendako pertsonak onartuak izaten ahal dira ikaspostu hutsak sortzen badira, eta araudi honek ezarritako matrikula-araubidearekin bat. Ikaspostu hutsak banatzeko aldiari-aldian deialdiak eginen dira.<sup>14</sup>Berriz ere deitzen ahalko zaie ikaspostu hutsen eskaintzari erantzun ez dioten eskatzaileei, eta, erantzun arren, eskaintako ikaspostuetakoren batean ere matrikula osatu ez dutenei.

e) Zerrendek, irizpide pedagogikoak eta antolamenduzkoak direla eta, ikasturte bakoitzeko lehen eta bigarren hiruhilekoetan edukiko dute indarra.

d) Behin ikasturtea hasi eta gero ikaspostu hutsak betetzeko II. kapituluaren 3. artikuluan -Matrikula-araubidea- deskribatutako ordena jarraituko da. Itxarote-zerrendan agertzen diren hautagaiei deitzen zaienean, zozketa bidez ezarritako ordenari jarraituko zaio, baina ikaspostu hutsen ezaugarriak kontuan hartuta, halako moduz non eskaintako ikaspostuaren ezaugarriekin bateragarria den zerrendako lehen ikasleari

<sup>12</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia

<sup>13</sup> Eskolako Kontseiluan 2024eko ekainaren 20an hartutako erabakia

<sup>14</sup> Eskolako Kontseiluan berrikusitako testua, 2021eko ekainaren 22an



deituko baitzaio, honako hauen arabera: ordutegia, Musika-hizkuntza eta Koruko ikaslearen adina, etab.<sup>15</sup>

## II. KAPITULUA: Matrikula araubidea.

1.- Iruñeko Udalak 1997ko abuztuaren 29an onetsitako “Joaquín Maya” Musika Eskolako Ikastetxe-planarekin bat, ikaslea eskolan matrikulatzen ahalko da honako betekizun hauek betetzen baditu:

a) 7 urte baino gehiago izatea edo betetzea matrikula egiten den urte naturalean, eta Iruñean erroldatuta egotea behin-behineko izen-ematea hasi baino lehen. Ikasle adingabeak gurasoek ordezkatu beharko dituzte matrikula egiteko. Matrikularen izapidean erantzukizunpeko adierazpen bat txertatuko da, matrikula formalizatzen duen adingabearen ordezkariak beste ordezkariaren baimena duela adierazteko<sup>16</sup>.

b) Erregelamenduan jasotako arauen arabera onartua izatea.

c) Ikaspostu-erreserba mantentzea, ikaslea mailaz igo delako.

d) Udal-ordenantza fiskaletan jasotako prezio publikoa ordaintzea.

e) Zozketan izena eman nahi duten Eskolako ikasleek ikaspostuari uko egin beharko diote ikasle berri gisara matrikulatu baino lehen.<sup>17</sup>

2.- Ez da epez kanpoko matrikularik onartuko.<sup>18</sup>

3.- Ikaspostu hutsak

a) Ekainean, hurrengo ikasturterako Eskolako ikasleen matrikula-garaia bukatuta sortzen diren ikaspostu hutsak honako ordena honen arabera eskainiko dira:

1. Ikasturte guztia eszedentzian egon diren ikasleak

2. Hurrengo ikasturtean instrumentuz edo irakaslez aldatzea eskatzen duten ikasleak

3. Azkenik, hutsik dauden ikaspostuak zenbatuko dira azken aldiz, behin-behineko izen-ematean ikaspostua eskatu zutenen artean zozketatuko diren ikaspostu kopurua jakiteko. Zozketan ikaspostua lortu eta matrikula egiten duten ikasleek irailean hautatuko dute instrumentua, zozketan lortutako ordenan.

---

<sup>15</sup> Eskolako Kontseiluak 2010eko urriaren 26an hartutako erabakia

<sup>16</sup> Eskolako Kontseiluak 2019ko urriaren 30ean hartutako erabakia

<sup>17</sup> Eskolako Kontseiluak 2012ko ekainaren 19an hartutako erabakia

<sup>18</sup> Eskolako Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an hartutako erabakia



b) Urrian, 7. arauak matrikula baliogabetzeko eta dirua itzultzeko ezartzen duen eskubidearen epea amaitu eta gero, ikaspostu hutsak ordena honetan eskainiko dira:

1. Ikasturte guztia eszedentzian egon diren ikasleak<sup>19</sup>
2. Hurrengo ikasturtean instrumentuz edo irakaslez aldatzea eskatzen duten ikasleak
3. Ikasle berriak, irailean erronda egin eta lehen aukerako instrumentua lortu ez zutenak, espezialitate horretan ikasposturik eskaintzen bada betiere.
4. Itxarote-zerrendan dauden ikasturte bereko ikaspostua eskatzen dutenak.

---

<sup>19</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia



c) b) puntuak deskribatutako adjudikazioa egin eta gero, sortzen ahal diren ikaspostu hutsak eskainiko dira:

1. Ikasturte guztia eszedentzian egon diren ikasleak<sup>20</sup>
2. Hurrengo ikasturtean instrumentuz edo irakaslez aldatzea eskatzen duten ikasleak
3. Ikasle berriak, irailean erronda egin eta lehen aukerako instrumentua lortu ez zutenak, espezialitate horretan ikasposturik eskaintzen bada betiere.
4. Itxarote-zerrendan dauden ikasturte bereko ikaspostua eskatzen dutenak.

4.- Ikasleek instrumentuz eta irakaslez aldatzeko aukera izanen dute, baita instrumentuaren matrikula bikoiztekoa ere, honako arau hauekin bat:

a) Interesa duten ikasleek eskaera bat aurkeztuko dute horretarako ezarritako epean barruan

b) Eskaerei hurrenkera honetan erantzunen zaie:

1.-Irakaslez aldatzeko eskaerak: Ez da beharrezkoa izanen ikaslea ikasten ari den instrumentuko irakaslearen baimena<sup>21</sup>. Aldaketa baimenduko da baldin eta, aldaketa horretarako ezarritako epean eskatuta, espezialitate bereko beste irakasle batek ikaspostu hutsak baditu. Ez da irakaslez aldatzeko eskaerarik onartuko Musika-hizkuntza irakasgaietan.

2.-Instrumentuz aldatzeko eskaerak:

Instrumentuz aldatzeko eskaera bakarra onartuko da ikasle bakoitzeko eta eskolako egonaldi jarraitu bakoitzeko. Ikasle ohiak zerotik hasiko dira Eskolan sartzen diren aldioro, eta gainerako ikasleei aplikatzen zaien arau berberak aplikatuko zaizkie.<sup>22</sup>

Ikasle berriari eman bazaio I. kapituluan, 3. artikuluan, b) 3 eta c) 3 letretan ezarritako instrumentu aldaketaren bat, ezin izanen du berriz instrumentuz aldatu.<sup>23</sup>

---

<sup>20</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia

<sup>21</sup> Eskolako Kontseiluak 2015eko azaroaren 15ean hartutako erabakia

<sup>22</sup> Eskolako Kontseiluak 2015eko azaroaren 15ean hartutako erabakia

<sup>23</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia



Instrumentuz aldatzeko ezinbesteko betekizuna izanen da ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgai guztiak gainditu izana.

Erabateko eszedentzian dauden ikasleek eskolan ikasketak berriz hasiko dituzten ikasturterako instrumentua aldatzeko eskatzen ahalko dute, baldin eta II. kapituluko 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.<sup>24</sup>

Instrumentu bakar batera aldatzea eskatzen ahalko da.<sup>25</sup>

Instrumentuz aldatzea eskatu duten ikasleei ikaspostu hutsak ordena honetan esleituko zaizkie:

- a) Bakarrik 2. mailara arteko ikasleen eskaerei erantzunen zaie (maila horretakoak barne), maila baxuenekoetatik hasita.<sup>26</sup>
- c) Instrumentuz aldatzeko itzarote-zerrenda aldaketa eskatu den ikasturtean bakarrik egonen da indarrean.<sup>27</sup>

Behin ikasturtea hasita, aldatzeko eskaintza bati uko egiten ahalko zaio eta itzarote-zerrendan jarraitu, honako kasu hauetan:

- Derrigorrezko irakaskuntzako ordutegiarekin batera izatea.
- Eskolako beste irakasgai batekin batera izatea, taldez aldatzeko aukerarik gabe.

3.- Bi instrumentutan matrikula egitea. Eskolan onartuak izateko hautagaiak itzarote-zerrendan badaude, ez da egonen bi instrumentu ikasteko aukera.

#### 5.- Musika-hizkuntzako, Koruko eta Harmoniako taldez aldatzeko eskaerak:

Aldaketa-eskaerak hartuko dira kontuan Musika Eskolako ordutegiak eskola-ordutegiarekin bateraezinak badira, Musika-hizkuntzako beste talderen batean anai-arrebak badaude edo behar bezala justifikatutako osasun-zioengatik, lehentasunez.

Behin aurretik deskribatzen diren aldaketa eskaerak ebatzita, beste zio batzuek dituzten eskabideak tramitatuko dira.

---

<sup>24</sup> Eskolako Kontseiluak 2023eko azaroaren 16an hartutako erabakia

<sup>25</sup> Eskolako Kontseiluak 2021eko ekainaren 22an hartutako erabakia

<sup>26</sup> Eskolako Kontseiluak 2015eko azaroaren 15ean hartutako erabakia

<sup>27</sup> Eskolako Kontseiluak 2021eko ekainaren 22an hartutako erabakia



Eskolako zuzendariak eta ikasketaburuak ebatziko dituzte horretarako gaitutako epearen barruan aurkeztutako eskaerak.<sup>28</sup>

#### 6.-Irakasgaiak baliozkotzeko eskaerak:

Bakarrik baliozkotuko dira Joaquin Maya Eskolan aurretik ikasitako irakasgaiak, edo Oinarrizko Kontserbatorioen, Kontserbatorio Profesionalen edo Goi Mailako Kontserbatorioen curriculumak ezartzen dituen araudian erregulatutako ikasketan planen barruan egindakoak.<sup>29</sup>

Koruko irakasgaia baliozkotzea eskatzen ahalko da ikasleak aitortza duen abesbatzaren batean parte hartzen duenean. Ikastetxeko zuzendaritzak espezialitateko irakasleen aldeko txostena jaso ondoren onartuko du eskaera.<sup>30</sup>

#### 7.-Matrikulen itzulketa

Matrikulak itzultzeko epea irailaren 30ean amaituko da, salbu eta matrikulak data horren ondoren egin badira. Kasu horietan matrikula baliogabetu eta dirua itzultzeko eskubidea egonen da, matrikula egin ondorengo hamabost egunen barruan.<sup>31</sup>

Joaquin Maya Udaleko Musika Eskolak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen arauak ezarritakoarekin bat, matrikula ez da osorik itzuliko eta kudeaketa-gastuak deskontatuko dira.

#### 9.- Eszedentzia eskaerak

Zentroko Kontseilua, edo hark eskuordetzen duen organoa, izanen da eszedentzia eskatzeko eskabideak ebazteko organo eskuduna.

Eszedentzia eskabide bidez eskatuko da, eta ikasturte osorako edo zati baterako eskatzen ahalko da. Azken kasu horretan, ikasturte osoa hartzen ez duen eszedentzia oro *eszedentzia partzialtzat* hartuko da. Eskabideari eskaeraren arrazoia egiaztatzen duten agiriak erantsiko zaizkio.

---

<sup>28</sup> Eskolako Kontseiluak 2012ko urriaren 18an hartutako erabakia

<sup>29</sup> Eskolako Kontseiluak 2023ko apirilaren 27an hartutako erabakia

<sup>30</sup> [Eskolako Kontseiluak 2023eko azaroaren 16an hartutako erabakia](#)

<sup>31</sup> Joaquin Maya Udaleko Musika Eskolak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen araua (7. araua).



Ikasturte osorako eszedentzia duten ikasleek ez dute ikasturte horretarako matrikularik egin beharko. *Eszedentzia partziala* duten ikasleek matrikula eginen dute horretarako ezarritako epearen barruan, eta osorik ordainduko dute, behin dagokion tasen araudian jasotako deskontuak aplikatu ondoren. Ez da deskonturik aplikatuko ikaslea eszedentzia egoeran dagoen denboragatik.

Ikasturte osorako eszedentzia eskatu duten ikasleen ikaspostuak ez dira hutsik gordeko. Ikaslea eszedentzian egon den ikasturtea amaitu ondoren, ikaspostu librean berri emanen zaio. Haren Instrumentuan ikaspostu hutsik balego, ikasleak matrikula eginen du Eskolako ikasle guztiendako ezarritako ohiko epearen barruan.

Eszedentzian egondako ikasleen ohiko matrikula-epean ikasposturik ez balego, ikasleak ikasturte bakar batean zehar indarrean egonen den itzarote-zerrenda batean geratuko lirateke.

Aurreko ikasturtean eszedentzian egon eta instrumentu bera duten ikasle bat baino gehiago egonez gero, zozketa bat eginen da ikaspostua(k) zeini dagozkion zehazteko.

Ikasturtean zehar hutsik geratzen diren ikaspostuak, baita ematen diren eszedentzia eskaerengatik hutsik geratzen direnak ere, ikasle berriei eskainiko zaizkie, eta hurrengo ikasturtean eszedentzia eskatu zen espezialitatean ikaspostu hutsik ez badago, ikaspostu-eskaera luzatu eginen da espezialitate horretan ikaspostu huts bat geratu arte.<sup>32</sup>

## 10.- Ikasle ohiak

- a) Eskolan instrumentuko 8. maila ikasi eta gainditu duten ikasle ohiak ezinen dira berriz ere instrumentu horretan berean matrikulatu.
- b) Eskolan ikasi eta instrumentuko 8. maila amaitu eta gainditu ez duten ikasle ohiak matrikulatzen ahalko dira berriz ere gainditu duten azken mailaren hurrengoan, baldin eta zozketan ikaspostu bat egokitzen bazaie, eta instrumentuen errondara joan badira.
- c) Gainditu ez eta, horrenbestez, ikaspostua galdu duten ikasle ohiak ezin izanen dira berriz ere Eskolan matrikulatu, harik eta gutxienez 2 ikasturte igaro arte suspenditu zuten eskola-ikasturtetik kontatuta.
- d) Bi aldiz Gutxiegi izan duten ikasleak ezin izanen dira berriz ere Eskolan matrikulatu.
- e) Justifikatu gabeko hutsegiteengatik eskolatik kanpo geratutako ikasleak oro ezin izanen dira berriz ere Eskolan matrikulatu, harik eta gutxienez 2 ikasturte igaro arte eskolatik kanpo geratu zen eskola-ikasturtetik kontatuta.<sup>33</sup>

<sup>32</sup> Eskolako Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an hartutako erabakia

<sup>33</sup> Eskolako Kontseiluak 2021eko ekainaren 22an hartutako erabakia



- f) Zozketan izena eman nahi duten Eskolako ikasleek ikaspostuari uko egin beharko diote ikasle berri gisara matrikulatu baino lehen.

### III. KAPITULUA: Ikasketa-plana.

1.- Hezkuntza Proiektuan zehaztutako helburuak lortzeko, Urteko Planak irakasgaiaren antolaketa islatuko du. Mailaz igotzeko irizpideak, ebaluazio-baldintzak, irakasgaien deskribapena, zikloen arabera antolamendua, ordutegiak eta abar jasoko ditu.

2.- Instrumentuko ordutegia esleitzeko, ordena honi jarraituko zaio:

1.a. Mugikortasun murriztuko ikasle desgaituak eta antzeko kasuak –Eskolako Zuzendaritzak banaka balioetsiko ditu–, ikasleen adina kontuan hartu gabe.<sup>34</sup>

2.a. Behin mugikortasun murriztuko ikasle desgaituek ordutegia hautaturik, gainerakoek ordutegia hautatzeko hurrenkera ikasleen jaiotze-dataren arabera ezarriko da, gazteenetik hasita.

Instrumentuko ordutegia esleitzeko ekitaldi berean Taldea esleituko zaie, bai lehen zikloko ikasleei (borondatezko irakasgai) bai bigarren zikloko (derrigorrezko irakasgai). Taldeen lehen esleipen hori behin-behinekoa da. Aldaketak egiten ahalko dira arrazoi pedagogikoengatik, jende kopuruagatik eta/edo Koru-taldeen soinu-orekagatik.

---

<sup>34</sup> Eskolako Kontseiluak 2020ko ekainaren 29an hartutako erabakia